



**Busturiko
Udala**

ASTIALDIKO BEGIRALEEN ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO HAUTAPEN-PROBEN OI- NARRIAK

1.- DEIALDIAREN HELBURUA ETA LANPOSTUEN EZAUGARRIAK.

- 1.1. Dokumentu honen helburua da astialdiko begiraleen aldi baterako kontrataziorako egin beharreko probak zuzentzea, begirale horiek "EUSKARAZ OLGETAN" 2012 kanpainaren baitako jarduerak egin ditzaten.
- 1.2. Lanaldia astean hogeitorturikoa izango da, horrela banatuta: astelehene-tik ostiralera 9:30etik 13:30era.
- 1.3. Soldata-maila indarrean dagoen ARCERPAFE-EFAPEBAAko 5.a izango da.
- 1.4. Hautapen prozedura lehiaketa askea izango da.
- 1.5. Kontratuak hilabeteko iraupena izango du.

2.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK.

2.1. Deialdi honetan onartua izateko, hautagaiak honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a. Herritartasun espainiarra edukitzea edo Europar Batasuneko herrialde kide batekoa izatea.
- b. 18 urte beteta edukitzea, eta ez edukitzea hirurogei urte baino gehiago eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.
- c. Dagozkion funtzioen betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikologikorik ez izatea.
- d. Diziplina-espediente bidez Estatu, Autonomia Erkidego edo Toki Administrazio Zerbitzuetatik aldentuta ez egotea, hala nola ez egotea funtzio publikoak betetzeko ezgaituta.



**Busturiko
Udala**

- e. Euskara ahoz eta idatziz menderatzea, maila altuarekin (epaimahaiaren aurrean egiaztatu beharko da, proposaturiko jarduera-programa ahoz defendatuz).
- f. Astialdiko Begirale Titulua edo antzekoa izatea.
- g. Azken hiru hilabeteetan jardunaldi osoko lan-kontratu bat eduki ez izana.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean hartuko dira kontuan.

2.2. Eskabidearekin batera, nahitaez aurkeztu beharko dira.

- a) Curriculumuma
- b) Alegaturiko merituen ziurtagiriak (jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak)
- c) Kanpainarako proposaturiko jarduera-programa (helburuak, edukiak, jarduerak, metodologia, denbora-epeak, emaitzen ebaluazioa eta baliabide materialen aurreikuspena zehaztu beharko dira).

3.- ESKABIDEAK.

3.1. Eskabideak Busturiako Udaletxean aurkeztuko dira bulego-ordutegian.

3.2. Eskabideak aurkezteko epea 2012ko ekainaren 13an bukatuko da.

3.3. Deialdirako eskubidea doakoa izango da.

4.- EPAIMAHAIA.

4.1. Alkate Mahaiburuak ebazpena idatziko du onartuei eta kanporatuei dago kienez, Iragarki-taulan argitaratuta.

4.2. Epaimahaiak osaera hau izango du:

Mahaiburua: Udalekoa.

Lau kide:

- Zinegotzi-talde bakoitzeko ordezkari bat.
- Sustatzaile soziokulturala-liburuzaina.
- Euskara teknikaria



Idazkaria: Udalekoa, ahotsa izango du, baina botorik ez.

Epaimahaiak oinarri hauek interpretatzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko eskumena izango du.

5.- LANGILEEN HAUTAPENA.

Langileen hautapenean, Busturian erroldaturiko hautagaiek izango dute lehen-tasuna, beraz, Busturiako biztanleak diren hautagaiak egonez gero, ez dira erroldatu gabeak kontratatuko.

Hautapena egingo da Epaimahaiak hautagaiek alegaturiko eta dokumentu bidez egiaztaturiko merituen kalifikazioa eta balorazioa eginda.

Alegaturiko eta aurkezturiko merituei dagokienez, honela kalifikatuko dira.

1.- Prestakuntza: gehienez 8 puntu.

Animazio soziokulturalarekin edo gazte-informazioarekin loturiko ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak... egin izanagatik:

15 ordura arte: 0,05 puntu

15 eta 30 ordu artean: 0,10 puntu

31 eta 60 ordu artean: 0,20 puntu

61 eta 150 ordu artean: 0,40 puntu

151 eta 300 ordu artean: 0,70 puntu

301 ordu edo gehiago: 1 puntu

2.- Eskarmentu profesionala: gehienez 6 puntu.

- Herri Administrazioan zerbitzuak emandako sei hileko edo 6 hil edo gehiagoko frakzio bakoitzagatik, haurren animazio soziokulturalarekin lotutako lanpostuetan: 0,50 puntu, gehienez 2,5 puntu.
- Erakunde pribatuetan zerbitzuak emandako sei hileko edo 6 hil edo gehiagoko frakzio bakoitzagatik, haurren animazio soziokulturalarekin lotutako lanpostuetan: 0,25 puntu, gehienez puntu 1.
- Boluntarioki erakunde pribatu edo publikoetan zerbitzuak emandako sei hileko edo 6 hil edo gehiagoko frakzio bakoitzagatik, gazte-programetan (udalekuak, auzo-elkarteak...): 0,25 puntu, gehienez puntu 1.

3.- Langabezian egotea: 2 puntu hiruhileko bakoitzagatik, gehienez 10 puntu.



**Busturiko
Udala**

4.- Aurkezturiko programaren balorazioa: 6 puntu (horretarako, hautagaiak ahoz eta euskaraz defendatu beharko du proposaturiko programa Epaimahaiaren aurrean).

5.- EGA edo antzeko tituluren bat izatea: 6 puntu.

6.- PROBEN EMAITZAK.

Merituen balorazioa bukatutakoan, Epaimahaiko Idazkariak proba puntuazio handienarekin gainditu duten hautagaiei jakinaraziko die, eta horiek ezingo dira izan deituriko lanpostuak baino gehiago.

7.- GERTAKIZUNAK.

Epaimahaiak sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta deialdia ondo joan dadin beharrezko akordioetara iristeko eskumena izango du, Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez.